

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Geologia

USE 2022

www.ehu.eus



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2022ko OHIKOA

GEOLOGIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2022

GEOLOGÍA

Azterketa honek LAU atal ditu. Guztiei erantzun behar diezu.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea.

Atal bakoitzean galdera bakar bati erantzun behar diozu.

Atal bakoitzak adierazia du balioa.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Este examen tiene CUATRO apartados. Debes contestar a cada uno de ellos.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Solamente debes contestar a una pregunta en cada apartado.


Cada apartado tiene establecido su valor.

En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.



LEHEN ATALA (5,5,PUNTU)

1a GALDERA



Ezaugarriak: 1. Eozeno eta Oligozenoko ibai konglomeratuak, hareharriak eta lutitak eta kareharri lakutarrak; 2. *Goi Kretazeoko arrapalako edo sakonera txikiko kareharriak (Lacazinadun kareharriak)*; 3. Triasikoko igeltsuak eta buztinak; 4. *Behe Kretazeoko ibai- konglomeratuak, hareharriak eta lutitak (Utrillas Formazioa)*; 5. Paleozenoko sakonera gutxiko eta arrapalako kareharriak; 6. Behe Kretazeoko ibai hareharriak eta lutitak (Escucha Formazioa); 7. *Goi Kretazeoko arrapalako edo sakonera txikiko kareharriak (Subijanako kareharriak)*; 8. *Goi Kretazeoko sakonera gutxiko arrapalako kareharriak eta tupa*; 9. *Goi Kretazeoko harreharri, lutitak eta tupa deltaikoak*; 10. Jurasikoko arrapalako kareharriak eta tupa; 11. Kareharri ostreido eta orbitolinekin (fazie urgondarrak); 12. Limonita eta buztinak (Weald fazieak). (*Energia Euskal Erakundeak argitaratutako 1:25000 serieko Labastida orrialde geologikoa, 170-I-3*)


a) Egin ezazu irudi honetako ebaketa geologikoari dagokion serie estratigrafikoaren marrazkia (0,5 puntu), ordenatu itzazu 1etik 12rako materialak zaharretik berrienera (0,5 puntu) eta adierazi ezazu unitate bakoitza zer Era geologikoan kokatzen den (0,5 puntu).

b) Azaldu ezazu, labur, ebaketa geologiko honetako genesisia (1 puntu). Ordenatu, zaharretik berrienera, eman diren transgresio edo erregresioak eta beraiekin erlazionatuta dauden unitateak (0,5 puntu).

c) Balio hauetan oinarriturik, aukeratu ezazu zein izango den ebaketan adierazita dagoen (a) faila-jauzia: 1) gutxi gorabehera 50 metro; 2) gutxi gorabehera 150 metro; 3) gutxi gorabehera 250 metro (kalkulua egiteko, ebaketaren eskala bertikala baliatu behar duzu) (0,5 puntu). Deskriba itzazu, labur, 3 eta 8 unitatetako arroak (erabili bost lerro gehienez) (1,5 puntu). Ebaketan adierazita dagoen (a) faila, zer faila mota da?



1b GALDERA



Ezaugarriak: 1. Behe Kretazeoko limonitak eta hareharriak (*Weald fazieak*); 2. Goi Kretazeoko kareharriak, tupa karetsuak eta tupak (*Flysch karetsua*); 3. Jurasikoko (*Dogger*) arrapalako kareharriak; 4. Behe Kretazeoko lutitak, hareharriak eta konglomeratuak (*supraur gondar detritikoa*); 5. Kareharri arrezifalak errudista eta koralekin (*urgonianoa*); 6. Triasikoko buztinak eta ebaporitak; 7. Kuarternarioko bretxa periglaziarrak eta kolubialak; 8. Jurasikoko dolomiak eta kareharri oolitikoak; 9. Jurasikoko (*Malm*) sakonera gutxiko kareharriak eta konglomeratuak; 10. Goi Jurasikoko (*Lias*) tupak eta tupa karetsuak. (*Energia Euskal Erakundeak argitaratutako 1:25000 serieko Ordizia orrialde geologikoa, 89-III*)

a) Egin ezazu irudi honetako ebaketa geologikoari dagokion serie estratigrafikoaren marrazkia (0,5 puntu), ordenatu itzazu 1etik 10rako materialak zaharretik berrienera (0,5 puntu) eta adierazi ezazu unitate bakoitza zer Era geologikoan kokatzen den (0,5 puntu).

b) Azaldu ezazu, labur, ebaketa geologiko honetako genesis (1 puntu). Ordenatu, zaharretik berrienera, eman diren transgresio edo erregresioak eta beraiekin erlazionatuta dauden unitateak (0,5 puntu).

c) Balio hauetan oinarriturik, aukeratu ezazu zein izango den ebaketan adierazita dagoen (a) faila-jauzia: 1) gutxi gorabehera 250 metro; 2) gutxi gorabehera 500 metro; 3) gutxi gorabehera 750 metro (kalkulua egiteko, ebaketaren eskala bertikala baliatu behar duzu) (0,5 puntu). Deskriba itzazu, labur, 1 eta 5 unitatetako arroak (erabili bost lerro gehienez) (1,5 puntu). Zer kontaktu mota dago 2 eta 4 unitateen artean? Eta 5 eta 7 unitateen artean? (0,5 puntu).




BIGARREN ATALA (1 PUNTU)

2a GALDERA

Geziak Iparraldea adierazten du. Erantzun hauei:


- Adieraz ezazu zer norabide duen mapa geologiko honetan margotuta dagoen estratua (0,5 puntu).
- Adieraz ezazu norantz okertzen den mapa geologiko honetan margotuta dagoen estratua (0,5 puntu).



2b GALDERA

Geziak Iparraldea adierazten du. Erantzun hauei:

- Adieraz ezazu zer norabide duen mapa geologiko honetan margotuta dagoen estratua (0,5 puntu).
- Adieraz ezazu norantz okertzen den mapa geologiko honetan margotuta dagoen estratua (0,5 puntu).





HIRUGARREN ATALA (1,5 PUNTU)

3a GALDERA

Ikasturte honetan gertatu diren fenomeno naturalen artean, Cumbre Vieja sumendiaren erupzioa nabarmendu behar da, zalantzarik gabe. Nola azaltzen da, Plaken Tektonikaren teoriaren argitan, sumendi berri horren agerpena eremu geografiko horretan? Arrisku naturala eta bere motak definitu itzazu. Zonalde horretan eta eremu zehatzean, erupzio bolkanikoa izaten zen arriskua?

3b GALDERA

Mineralak eta arroak eratzen dituzten prozesu geologikoen artean, horietako zeinetan sartuko zenuke gas- eta hidrokarburo-biltegien sorrera? Biak daude lotuta? Deskribatu labur-labur aztarnategi horien izaera eta jatorria.

LAUGARREN ATALA (2 PUNTU)

4a GALDERA

Definizioak (definizio bakoitzean 30 hitz baino gutxiago erabiltzea gomendatzen da):

- 1) Kuartzita.
- 2) Metasomatismoa.
- 3) Arro sedimentarioa.
- 4) Diapiroa.

4b GALDERA

Definizioak (definizio bakoitzean 30 hitz baino gutxiago erabiltzea gomendatzen da):

- 1) Harbelarria.
- 2) Fluido hidrotermala.
- 3) Bilakaera magmatikoa.
- 4) Ziklo hidrologikoa.